

**Denboraren makina**  
Historiako  
heriotza bitxiak

❑ *Ezpalak*  
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*  
❑ *Makina bat kontu*

**Thesi**  
Entzia mendilerroa:  
Arabako Lautada  
oinpean

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

# TMEO

## Umore parrastadak

Hogei urte bete ditu *TMEO* aldizkariak aurten. Euskal Herriko komikigintzan lehenbiziko fanzinea izan ez bazen ere, 1980ko hamarkadatik gaur egunera arte biziraun duen bakarra dugu. Horregatik aste honetako Getxoko Komiki Azokan omenaldia jasoko du Gasteizko aldizkariak. Atzera begiratu, eta nostalgiaz gogoratzen dituzte hasierako urteak; baina lortu dutenaz harro, aurrera jarraituko dute, umorea nonahi isuriz.

ANDER EGILUZ

Marrazkiak: TMEO





Santi Orue.



Joaquín Delgado, *Kini*.

# Helduak, bai

**FANZINEAK GAUR EGUN** ez daude modan. Ezta horien inguruko gauza gehienak ere. Alde zaharretako taberna asko arropa denda bihurtu dira; eta individualismoa gailendu da garai bateko gizarte mugimendu jendetsuen gainetik. Horren eskutik etor liteke fanzineen gainbehera Santi Orue (Gasteiz, 1964) *TMEO*ko komikilariaren ustez: “Lehen jendea tabernetan batzen zen, eta komikiak elkarren artean trukatzeko zituzten. Gaur egunean ez dago ez tabernarik, ezta trukatzeko komikirik ere”.

Komiki eta fanzineak kontrakulturaren ikurrerarik bat izan dira beti, nahiz eta, aldi berean, produktu kulturala ere badiren, Antton Olariagaren (Usurbil, Gipuzkoa, 1946) ustez. Baliabide gutxirekin sortutako aldizkariak ziren, gehienetan afizionatuek eginak eta, beti ere, boteretsuak kritikatzeko asmoz sortuak. Hala ere, 1980ko hamarkadan, *TMEO*k garai berrietara egokitzen jakin zuen eta politika hutsa jorratu beharrean egunerokotasunaren inguruko umorea egiten hasi zen. “Urte haietan umore aldizkariak politika gehiegi jorratzen zuten, eguneroko bizitzatik urrunegi zeuden. Gizartea aldatzen zihoan heinean aldatu behar izan zuten aldizkariak, eta *TMEO*k hori aski ongi ulertu zuen”, *El Jueves* astezariko Maikel zuzendariaren hitzetan.

Ernesto Murillo *Simonides* (Murchante, Nafarroa, 1952) dugu *TMEO*ren sortzaileetariko bat.

Santi Orue eta bera hasierako urratsak azaltzeko solaskide ezin hobeak dira.

**Hogei urte bete ditu aldizkariak aurtan. Zelan hasi zen hau guztia?**

**Simonides.** *TMEO* lehenagoko fanzine eta saiakera guztiei oso lotuta dago: *Octopus*, *Theos Kopón...* Baina herentzia behinenak *El Txino*, *Hamelín* eta *El Víborarenak* izan ziren. Aldizkari horietan genbiltzan askoren ondorioa izan zen *TMEO*: Pedro Osés, Joaquín Resano, Bernardo Vergara, Txas... hiruzpalau aipatzearen. Gainera hasieratik Hegoaldeko lau lurraldeetarako geure banaketa sarea eduki nahi izan genuen.

**Santi Orue.** Giro hori gaur egungo komikigile askoren haztegia izan zen. Nik bigarren aletik kolaboratu dut, baina banuen erlazioa *TMEO*koekin lehenagotik. Erredakzioa Iruñetik Gasteizera mugitu zenean, teknologia berria ere sartu zen, eta orduan hasi nintzen lan gehiago egiten. Repromasterra eta fotolitoak atzean utzita, ordenagailuarekin hasi ginen koloreztatzen.

**Teknologiak aparte, zelan eboluzionatu du *TMEO*k?**

**S. Orue.** Gizartearekin batera aldatu da. Hasi-eran politikaz gehiago arduratzen zen, Euskal Herriko gaietara mugatzen zen batik bat. Eta





Ernesto Murillo, *Simonides*.



Ignacio Murillo, *Furillo*.

# na ez galduak

denborak aurrera egin ahala egunerokoari buruzko umorea hasi zen lantzen.

**Simonides.** Hala ere *politikeria* larregi ikusten dut egun komikigintzan. Politikariak izugarri aspertzen naute, eta komikigile batek lehenik eta behin egin behar duena bera dibertitzea da. Haserreak umorea galarazten ditu.

Atzera begirada bat eginez, zer esango zenukete gaur egungo egoeraz?

**S. Orue.** 1980ko hamarkadako urteak alaiagoak zirela. Manifestazioak, punk giroa, euskal rock erradikala...

**Simonides.** Garai hartan, askatasun gutxiago zegoenez ofiziala ez zen orok zuen indarra. Egun alderantziz gertatzen da: artearen munduan batik bat, ikuspuntu ofizialak du oihartzun handiena. Nekatuta omen dago jendea...

Nekeza da, bai, komikigilearen lana, Olariagaren iritziz: "Sentsibiltatea behar duzu bizitza aztertzeko. Ganbara jantzi behar duzu, lan handia egin, eta ez da erraza irabazi ekonomikoak lortzea". Baina nekeak ez die *TMEO*koen lortutakoen alaitasuna kentzen. Badute pozik egoteko arrazoirik, euskal komikigintzari egin-

**Artezblai ARGITALETXEAREN AZKEN ARGITALPENAK**

FTI - Antzerkiola Imaginarioaren liburuak  
8 Olivetti poetiko - Mundopolski, erreboltaren ziaboga  
Yuri Sam. Otoitza - Au Revoir triunfadoreak

Yorick Liburudendan edo  
[www.libreriayorick.com](http://www.libreriayorick.com) eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / [www.libreriayorick.com](http://www.libreriayorick.com) / [info@libreriayorick.com](mailto:info@libreriayorick.com)

dako ekarpenagatik. “TMEOk barre ugari eta esportatzeko marrazkilari asko eman dizkio Euskal Herriko komikigintzari”, Julio Albitre *El Karma* aldizkariko zuzendariaren iritziz. Olariagak fanzinearen ekarpenen artean garaiko tabu asko hautsi izana azpimarratu du.

**Hogei urte hauetan lortutakoaz harro beraz? S. Orue.** Bai. Azken batean, *TMEO* komikigile gazteentzako erakusleho bihurtu da.

**Atsotitz batek hala dio: Irudi batek mila berba adina. Eta, bineta batek mila editorial adina?**

**S. Orue.** Baietz uste dut. Gauza asko hitz gutxiarekin esateko dohaina dugu. Horregatik gero eta bineta gehiago dago beste medioetan ere.

**Simonides.** *El País*ek adibidez, sekulako marrazkilariak ditu: Máximo, El Roto, Forges...


**Komikigile gehientsuenak gizonezkoak zarete, eta TMEOn beste horrenbeste. Zer dela-eta?**

**S. Orue.** Komikigintzan emakumezko gutxiago dago zentzudunagoak direlako, eta ogirik ere ematen ez dizuen ogibideetan ez dihardutelako. Pragmatismoa esaten zaio, kar, kar, kar!

**TMEOkoe darabilzuen hiztegia erabiliz, komikiak egiteko bi estilo daude: “estilo pinpirina”, txukuna eta landua alegia, eta “estilo arina”, batere ortodoxoa ez dena. TMEOn zergatik nagusitzen da bigarren hori?**

**Simonides.** Hasierako urteetan, ofizialtasunetik aldentzearen izan zitekeen. “Estilo arina” ez-ofizialaren irudikapena izan zitekeen, agian.

**S. Orue.** *TMEO* azken batean fanzine bat da, eta kolaboratzaileek ez dute kobratzen. Hori izan daiteke hain landuta ez dauden marrazkiak izateko arrazoietariko bat. Hala ere,



Goian *TMEO* aldizkariaren 0. zenbakia. Behean berriz, 96. zenbakia, argitaratu den azkena.

badaude estilo landuagoa dagiten autoreak *TMEOn*: *Piñata* eta *Furillo* kasu. Ez ditugu egileak estilo zehatz bat erabiltzera behartzen.

Autogestionatutako fanzine batentzat hogei urte irautea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Orueren hitzetan, autogestioak askatasuna ematen dizu, baina diru aldetik muga jarri ere bai. Honetaz asko daki Joaquín Delgado *Kink* (Salamanca, Espainia, 1960), fanzinearen gaur egungo koordinatzaileak: “Autogestioarekin eta publizitate txikiarekin hogei urte irauteko ezinbestekoa da langilea eta tematia izatea. Eta egile berriak izatea ere bai. Baina, baldintzapean editorialik ez izate horretan tinko mantendu behar dugu”.

*Simonides*entzat hainbeste urte irauteko gakoa “berritasunean datza”. Eta hori, “askotan egile gazteek ematen dute”. *TMEO*ko gazteenetarikoa Ignacio Murillo *Furillo* da (Zaragoza, Espainia, 1976). Baina nahiz eta belaunaldi desberdinetako marrazkilariak egon, *TMEOn* oinarrizko gaietan bat datoz.

**Etorkizunari so, zelan ikusten dituzue hurrengo urteak? Internet izango da eboluzioaren hurrengo urratsa?**

**Furillo.** Internet, egun, pertsonen sormenaren ihesbidea da. Eta horixe da etorkizuna. Baina niri irakurtzen dudana eskuetan izatea gustatzen zait, eta gero apalategi batean gorde ahal izatea.

**S. Orue.** Liburuak ere desagertuko direla esan dute askotan... Rajoyren lehengusuari galdetu beharko genioke, kar, kar, kar!

**Furillo.** Paperezko komikiak ez dira sekula desagertuko, poesia oraindik desagertu ez bada! Kar, kar, kar!

**Kini.** Gainera *TMEO* komunean irakurtzeko aldizkaria da, eta ordenagailua komunera eramatea... Kar, kar, kar! ■



**INGURU ABENTURA**

- Abentura kirolak
- Eskola kanpamak
- Kanpamentuak
- Ospakizunak
- Multiabentura
- Prestakuntza ikastaroak
- Bidaia antolatutak
- Bizikleta edo/eta mendi materialaren alokairua
- Aurrekontuak (Neurrira egindakoak)

Harremaretarako telefono zenbakiak: 635 748 947 / 635 748 948 - Tel. eta Faxe: 945 288114  
San Juan kalea 18, 01208 Albeniz - ARABA · www.inguruabentura.com · info@inguruabentura.com